


**Hautaprobetako ariketak (2004 – Ekaina):
PNEUMATIKA**

2 ATALA: SISTEMA PNEUMATIKO ETA OLIOHIDRAULIKOAK ETA SISTEMA AUTOMATIKOAK: KONTROLA ETA ERREGULAZIOA.

A aukera: (Ariketa bi ditu)

I-A Irudiko eskema pneumatikoa emanda,



Erantzun ondorengo galderei:


- Identifikatu eta izendatu hurrengo osagaiak: 1.02, 1.04, 1.2 eta 1.8 (1 puntu)
- Azaldu instalazioaren oinarriko funtzionamendua. (2 puntu)
- Zer gertatzen da 1.2 eta 1.4 balbulei batera eragiten bazaie? (1 puntu)
- Zer gertatzen da 1.04 elementua alderantziz ipintzen bada? (1 puntu)

EBAZPENA

a) Identifikatu eta izendatu osagaiak:

Identifikazioa	Izena
1.02	Zirkuitua hautatzeko balbula. EDO / OR balbula.
1.04	Noranzko bateko emaria erregulatzeko balbula.
1.2	Balbula 3/2 NI. Agintea: pultsadorea. Itzulera: malgukiaren bidez.
1.8	Balbula 5/2. Aginte eta itzulera pneumatikoa.


b) Oinarrizko funtzionamendua




Hasieran, zilindroa sartuta egongo da, aire konprimatua aurreko ganbaratik sartu delako.

1.2 edo 1.4 balbuletan sakatzean, 1.6 balbularen lan-posizioa aldatu egiten da. Ondorioz, aire konprimatua atzeko ganbarara sartzen da eta zilindroak azkar (1.04 balbularen eraginik ez dagoelako) ateratzen da kanporantz.

Nahiz eta balbulak askatu, zilindroa ateratzen jarraitzen du.




Zilindroaren zurtaina 1.6 balbularen arrabolarekin topo egitean, balbula honen lan-posizioa aldatu egiten da eta ondorioz 5/2 balbula hasierako lan-posiziara itzultzen da. Hori dela eta, aire konprimatua aurreko ganbarara sartzen da, pixkanaka (1.04 balbularen eraginez); hau da, zilindroa barrura sartzen da astiro.



c) balbulei batera eragin

1.2 eta 1.4 balbulei batera eraginez gero, ondoko egoera hau gerta daiteke: bidea ematen duen balbularen barneko elementua erdian gera daiteke eta aire konprimatuaren bidea oztopatu; ondorioz, aire konprimaturik ez da pasako.

d) 1.04 elementua alderantziz



1.04 elementua alderantziz jartzen bada, airearen sarrera kontrolatu beharrez, zylindrotik ateratzen den airearen irteera kontrolatzen du. Kokapen hau egokiagoa da, zeren emaria kontrolatzen duten balbulen funtzionamendua hobetuegia da, zylindrotik ateratzen den airea kontrolatzen badu (zylindroaren funtzionamendua leunagoa da era honetan).

Ondorioz, zylindroa ateratzerako higidura motelagoa izango da eta azkarrago sartuko da zylindroa.